




Gari errearen urrina

Fertxu Izquierdo

Poesia, 70

978-84-9172-473-5

2026 - 96 or. - 15 x 21,5 cm

16 €

Garai hauetako kronika poetikoa dugu liburu hau, non egilearen bizipen pertsonalak, gizartearen bizipen kolektiboekin nahastuko diren: Gazako genozidioa, Estatu Batuetako poliziaren indarkeria, gure auzoetako hiri eta giza paisaiak, memoriaren magaletan gordeta daramatzagun gatazkak, heriotzaren atzaparkadak versus erotismo fin batean bildutako bizitzak...

Gari errearen urrinak garai zahar baten amaiera, eta uzta hobeen itxaropena dakarzkigu.



FERTXU IZQUIERDO

(Iruñea, 1975)

Poesian *Gerratearen aztarnak* (Pamiela, 2007) eta *Telebista antenetan atsedena hartzen dute txoriek* (Alberdania, 2009) liburuak argitaratu ditu, besteak beste. Narratiban *Mendeko borroka* (Pamiela, 2008), ...*eta gauetik, euria* (Pamiela, 2024) eleberrien egilea da, eta *39 idazle nafar* (Pamiela, 2017) liburuaren koordinatzailea. Saiakeran *Joseba Sarrionandia pantailaren aurrean* ikerketa-lana (Egan, 2007) argitaratu du. Irantzu Piquero ilustratzailearekin *Ordu txikitan* (Edizio anfibioak, 2022) album ilustratuaren egilea da. Zerocalcareren *Basoa basamortuaren kontra* (Quarticciolo ribelle, 2025) komikia italieratik euskarara itzuli du.

Hainbat literatur sari jaso ditu, besteak beste, Bilboko Blas de Otero-Ángela Figuera Nazioarteko I. Poesia Saria.

Mao-Tse-Punk fanzine-brigadetako partaidea izan da, fabrikako langilea, kale-garbitzailea, aldizkarietako kazetaria (*Nabarra*, *Txantrean Auzolan*, *Aldapa*...), irрати esataria (Eguzki irratia), irakaslea edota solfeorik gabeko musikaria (Banda Batxokin lehen, BlekingeKale Bandenen orain).

